

elkarte

60

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2024ko UZTAILA

www.elkartean.org




elkartean

elkartean@elkartean.org

HIRIARTEKO GARRAIOARI BURUZKO AZTERLANA

PUBLIPOSTA
PUBLICORREO



ARABA



EGINAREN EGINEZ

Arabako desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA



AGADELPRISE

Gipuzkoako linfedema primario edo sekundarioak eta lipedemak erasandakoen elkarte

AGAER

Gaixotasun erreumatikoez erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte

ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetetasuna

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena.

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

BIZKAIA



ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofiakoaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

ADISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtziko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ARNASA BIZKAIA

Euskal Herriko Fibrosis Kistikoaren Elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrozefalia gaixotasun arraroen euskadiko elkarte

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidun gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

BIZADELPRISE

Lifedema primario, sekundaioak eta Lipedema Eragindakoen Elkarte

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Faxa: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 31 67 70
Faxa: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

ARGITARATZAILEA:

EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKO DUTEN
PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA



L.G.:
Vi-123/01

Inprimitzeko erabilitako materiala:



Iturri arduratsuetatik datorren paper partzialki birziklatua

OROKORRA

Hiriarteko garraioari buruzko azterlana

4

- 5 • EMANTZIPA programa eta emantzipaziorako zerbitzuak.
- 6 • Hauteskunde autonomikoak.
- 7 • Euskadiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia .
- 8 • Euskadiko hezkuntzari buruzko legea onartu da.
- 9 • Aldatu egin dira ikasketetarako laguntzen 400 euroko sorospena eskuratzeko tipologiak.
 - Indarkeria matxistaren ondorioz hildakoen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa.
- 10 • Desgaitasunaren baremo berria .

ARABA

- 11 • Bandera urdina duten hondartzak.
 - Aurrekontu parte hartzaileak 2024-2025.
- 12 • Bizimodu independentearen Europako eguna .
 - Freedom drive 2024.
 - Etxebizitza.
- 13 • Tuvisako autobusetako arrapalen irisgarritasuna.
 - Goazen eskolara Eginaren EGINEZekin batera .
- 14 • Boluntaiara.
 - Batzar nagusia.
 - Empoderarte.

BIZKAIA

- 15 • Prestazio ekonomikoetarako zenbateko berriak.
- 16 • Aldaketa Bizkaian zaintzaileei emandako laguntzan .
 - Laguntza-produktuak erosteko laguntzak .
- 17 • Aparkatzeko gidaliburu erabilgarria .
 - Laguntza pertsonala.
- 18 • Europako Rural in Life proiektua.
 - Erakusketak lagatzea .


GIPUZKOA

- 19 • Bizimodu independentearen programaren ebaluazioa jendaurrean aurkeztu da.
 - Emakumearen behaketa orokorra.
- 20 • ELKARBIDEAN 2024 programa.
 - Erabakiz proiektua: bizimodu independentea probatzeko etxebizitza.
- 21 • Hitzetatiik ekintzetara.
 - Donostiako hiri mugikortasun jasangarriko planari egindako ekarpenak.
- 20 • Parte-hartze prozesua: hondartzetako bainu egokitua.

HIRIARTEKO GARRAIOARI BURUZKO AZTERLANA

Ezinbestekoa da ondasun, zerbitzu eta produktuetan irisgarritasun unibertsalerako behar diren baldintzak sustatzea, gizarte erabat inklusiboa lortzeko, non desgaitasuna duten pertsonak gainerako herritarren baldintza berdinetan parte hartu eta garatu ahal izango duten.

Horren harira, **Elkarteanek** azterlan bat egin du, Euskadiko garraio publikoaren irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatu eta bultzatu beharri buruz, kasu honetan, autobus-zerbitzuenak. Eta horretarako, ikerketa-jardueraren erdigunean jartzen du erabiltzaileek beraiek parte hartzea, desgaitasuna duten pertsonak ahalduzko modu gisa, legez aitortutako eskubideak defendatzeko eta sustatzeko.



Azterlana eginda, honako ondorio hauek egiaztatu ahal izan ditugu:

❑ **Joan-etorrien % 89n, desgaitasuna zuen pertsonak** aurrez aurre erosi behar izan zuen txartela, eta ez zuen modu telematikoan erosteko aukerarik izan. Gurpil-aulkia erabiltzen zuten pertsonak edo mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako eserlekuak erabili behar zituztenek ezin izan zuten txartela eskuratu dagokion webgunearen bidez.

❑ **Mugikortasun urriko pertsonak** ez zuten gurpil-aulkiarekin biratzeko manio-brarako 1,50 m-ko diametroko gutxieneko espazio libererik izan.

❑ **Ibilgailu gehienetan** ez dago bermatuta mugikortasun urriko pertsonentzako lau eserleku eta aulki gurpildunaren erabiltzaileentzako bi gune egotea.

❑ **Egindako joan-etorrien % 53n**, ibilgailuak ez zuten ainguraketarik, edo gidariek ez zekiten nola erabili.

❑ **Pertsonen % 64k** zailtasunak izan zituzten ordutegiei eta geldialdi irisgarriei buruzko informazioa lortzeko.

❑ **Soinu-informazioa** ez zegoen aktibatuta joan-etorrietan.

Txostenaren amaieran, dekalogo gisa, Euskadiko hiru lurraldeetako hiriburuak lotzen dituen autobus bidezko garraio publikoak indarrean dauden arauetan ezarritako irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatitzan landu beharreko lehentasunak jasotzen dituzten proposamenak daude.

Elkarteanek, azterlan honen bidez, gizartea eraldatzeko aldarrikapen-lanarekin jarraitzen du, lortutako emaitzek kolektiboari berari, erakunde publiko eta pribatuei eta herritarrei oro har, gizarte erabat inklusiboa lortzeko bidean aurrera egitea ahalbidetuko dietela sinetsita, **Konbentzioan desgaitasuna duten pertsonen** aitortzen zaizkien eskubideak bermatuz; horrela, pertsona guztientzako aukera-berdintasuna bermatu ahal izango da, aniztasuna aintzat hartuz eta errespetatuz.

Emantzipaziorako ate bat

Hilean **300 euroko** laguntza zuzena **25-29 urteko** gazteen emantzipazioa laguntzeko



EMANTZIPA PROGRAMA ETA EMANTZIPAZIORAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzak Emantzipa Programa onartu du, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazioa bultzatzeko laguntza.

Programa horren bidez, hilean 300 euroko laguntza emango da, gehienez 24 hilabetez, betiere etxebizitza libre baten alokairu-, hipoteka- edo mailegu pertsonalaren gastua egiaztatu ahal bada. Diru-kopuru bera jasoko da beti, etxebizitza partekatzen den ala ez kontuan hartu gabe. Etxebizitza partekatuz gero, prestazioa gehienez ere hiru pertsonari emango zaie etxebizitza bakoitzeko.

Prestazio hori bateraezina da babes publikoko etxebizitza batean, Bizigune programako edo ASAP programako etxebizitza pribatu batean edo gastu egiaztagarrikerik eragiten ez duen etxebizitza batean bizi zarekin. Laguntza eta prestazioei dagokienez, laguntza bateragarria da honako hauekin:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGD) eta gizarteratzeko beste errenta batzuk.
- Gaztelagun programa.
- Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE).
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL).
- Alokairu-gastuak ordaintzeko edo emantzipazioa bultzatzeko udalaren edo beste administrazio eta erakunde publiko batzuen laguntzak.

Laguntza horrekin batera, Eusko Jaurlaritzak bi bulego ireki ditu (Bilbo eta Barakaldo) gazteen emantzipazioa bultzatzeko. GAZ ize-neko emantzipazio-zerbitzua da, eta haren helburua da familia-etxetik atera nahi duten Euskadiko gazteek informazio egokia eta nahikoa izatea emantzipazio-ibilbidea erabaki ahal izateko.

Emantzipa Programan desgaitasuna duten pertsonentzako eskatu genituen ekintza positiboko neurriak jasotzen ez diren arren, beste baliabide eta laguntza batzuekin batera, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independenterako proiektuak diseinatzen eta garatzen lagun dezakeen laguntza dela uste dugu.

HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK

Apirilaren 21ean egin ziren hauteskunde autonomikoak, eta datozen urteetako Euskadiko politika publikoen oinarriak jartzeko garaia da.

Elkarreanek hauteskunde-hitzorduari heldu zion, alderdi politikoekin eta gizarte osoarekin Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako eskubideak gauzatzeko dauden erronkak partekatzeo aukera zela iritzita.

Horretarako, **dokumentu bat egin genuen, legealdi honetarako arlo hauetako 31 aldarrikapen biltzen zituena: bizimodu independenterako eskubidea, irisgarritasun unibertsala, hezkuntza, enplegua, osasuna edo berdintasun-politikak.**



Proposatutako neurrien artean, honako hauek nabarmentzen dira: bizimodu independenterako eskubidea arautzeko beharra, irisgarritasun unibertsalaren arloko araudi autonomikoa eguneratzea, desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu arrunta sustatzera bideratutako neurriak bultzatzea, hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan laguntzak, egokitzapenak eta doikuntzak bermatzea, edo politika, jarduera eta neurri guztietan genero-ikuspegia eta desgaitasun-ikuspegia sartzea, interseksionalitatearen printzipioa oinarritzat hartuta.

Horretarako, beharrezkoa da desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen benetako parte-hartze eraginkorra bermatzea politiken eta jardueren plangintzan, gauzapenean eta ebaluazioan, elkarrizketa zibilaren eta elkarlaneko gobernantzaren printzipioen arabera.

Elkarreanek hauteskundeetan parte hartzen zuten talde politikoekin egindako bileretan zehaztu zituen aldarrikapen horiek, baita gizarte osoari zuzendutako komunikazio-kanpaina batean ere. Era berean, legealdi honetan zehar neurri horiek defendatu eta bultzatzeko konpromisoa hartuko dugu; izan ere, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko aurrerapauso kualitatiboa izan behar du nahitaez aldi honek.